

### 1. Argibide orokorrak

Biztanleria (2020):	1.288 Emak.: %46,5 Giz.: %53,5
Batez besteko adina:	Emak.: 56,2 Giz.: 53,7
Jaiotza tasa:	%3,1
Gazteen mendekotasunaren indizea:	% 12,8
Zahartzaroko mendekotasun indizea:	%61
Atzerritan jaiotako biztanleak:	%5,1
Bizi itxaropena:	Emak.: 86,9 Giz.: 82,7
Zabalera:	438,97 km <sup>2</sup>
Zer Eskualdetakoa den:	Pirinoak ( <a href="#">ikus mapa</a> )
Udalerriak:	Burgui, Castillo-Nuevo, Garde, Isaba, Roncal, Urzainqui, Uztarroz, Vidangoz

### 2. Komunitatea eta osasuna

*Faktore soziodemografikoak eta ingurumenekoak.* Izabakoa da adierazleotan tasarik txikiak dituzten eskualdeetako bat: langabezia-tasa (% 5,5), pobrezia larriaren arrisku-tasa (% 4,2) eta DDBHko graduatutitularik gabeko 18 eta 24 urte bitarteko gazteen portzentajea (% 6,3). 2017-2019 aldiaren ez zen jaioberririk izan 20 urtetik beherako ama zuenik (% 0,0). Gainera, baso-azalerarik handiena duten Nafarroako eskualdeetako bat da (% 65,1). Bestetik, portzentajerik handiena duten eskualdeetako bat da bakarrik bizi diren 80 urte edo gehiagoko gizonen etxeen adierazlean (% 35,6).

*Osasunari dagozkion emaitzak.* Izabako Osasun Eskualde Oinarrizkoa emaitzarik onenak dituzten

eskualde oinarrizkoen % 25,0ren artean dago adierazleotan: soilik amagandik edoskitzen duten 6 hilabeteko haurrak (% 41,9), 2. motako diabetesa diagnostikatutako emakumeen prebalentzia (% 3,5), HbA1c.a neurtzen duten diabetikoak (% 81,2) eta TA neurtzen duten hipertentsiodunak (% 70,0). Era berean, antsiolitikoek eta antidepresiboek kontsumoan emaitza onenak dituzten eskualdeetako bat ere bada (% 15,1 emakumeetan eta % 7,1 gizonetan). Horrez gain, Izabakoa du Nafarroako emaitzarik hobereena kronikoen estrategian lehenetsiriko 3 patologia edo gehiago dituzten pazienteen adierazlean (% 1,2).

*Inkesta-adierazleak.* Hurrengo emaitza doitu\* hauek Nafarroa Atlantikoa-Pirinioak eskualdeari dagozkie (LAP zonifikazioa); Etxarri Aranazko eskualde oinarrizkoa eskualde horretan dago. Nafarroa Atlantikoa-Pirinioak emaitzarik hobereena du emakumeen sedentarisismoan (% 19,7). Aitzitik, emaitzarik okerrenak ditu datuotan: asteko alkohol-kontsumoa (% 6,3 emakumeetan eta % 34,4 gizonetan), tabakoaren eguneroko kontsumoa emakumeetan (% 13,1), fruta eta barazkien eguneroko kontsumoa gizonetan (% 18,8) eta gehiegizko pisua 15 urte edo gehiagoko pertsonetan (% 45,0 emakumeetan eta %61,1 gizonetan). \*Oharra: Inkesta-adierazleak eta hala eskatzen duten beste adierazle batzuk sexuaren eta adinaren arabera doitu dira, eskualdeen arteko konparazioa egin ahal izateko. Adierazle gordinak hurrengo orrialdearen behealdean agertzen dira.


#### Osasunerako baliabideak

Komunitatean badira osasunerako zenbait aktibo ahalmena dutenak norbanakoek, komunitateek eta herriek osasuna eta ongizatea mantendu eta sortzeko duten gaitasuna indartzeko (salutogenesia).

[-> Ikus eskualdeko aktiboaren mapa](#)

### 3. Adierazleen laburpena

Ondoko irudian agertzen dira adierazle sorta bati dagozkion eskualdeko balioak (puntu gorria) Nafarroako batez bestekoarekin alderaturik (barra bertikala) eta Nafarroako eskualde oinarrizkoen multzo osoarekin alderaturik. Adierazleen deskribapen zehatzagorik nahi izanez gero, haien [banakako fitxak](#) ikus daitezke Behatokiaren webgunean.



**Adierazleen iturria:** 1: Biztan. Mug. Nat.; 2, 5-6: SIPNa (Nafarroako Biztanleriaren Sistema Integratua); 3: Biztan. Akt. Ud. Estat; 4: Errenta. Estat; 7: SIGPAC (Nekazaritzako Lurzatzen Informazio Geografikoko Sistema); 8, 23-26, 29-30: Oinarrizko osasun-laguntza; 9-20: ESYCV (Gizarte eta Bizi Baldintzen gaineko Inkesta); 21-22: NOPLO; 27-28: Farmazia prestazioa

# Nafarroa Atlantikoaren adierazleak (9-20) LAP zonifikazioa (NASTAT). Irudian adierazitako balioen kopurua: 4.

\* Nabarmen desberdinak ( $p < 0,05$ ) Nafarroako emaitzarekin alderatuz (bizimoduaren, morbilitatearen eta osasun sistemaren adierazleetarako eginiko kontrastea).

**1.** Urteko batez besteko ugalkortasun-tasa berariazkoa (%) 14 eta19 urte bitarteko emakumeetan; **2.** DBHko graduatu-titulurik edo haren balioadun gabeko 18tik 24 urtera arteko gazteen %; **3.** Langabetuen % biztanleria aktiboaren aldean; **4.** Bizikideen errentaren baturak pobrezia larriaren atalasetik behera egiten duen etxeetan bizi diren pertsonen %; **5 eta 6.** Bakarrik bizi diren 80 urte edo gehiagoko pertsonen %, adin horretan familia-etxebizitzetan bizi diren guztien aldean; **7.** Baso-azalaren %; **8.** 170-190 egunetara soilik amagandik edoskitzen duten haurrak %; **9 eta 10.** Frutak eta barazkiak egunero jaten dituzten pertsonen % doituia (t. gordina: emakumeak 40,4 eta gizonak 20,4); **11 eta 12.** 15 urteko edo gehiagoko sedentarioen % doituia: ariketarik egiten ez dutela diote (t. gordina: emakumeak 20,1 eta gizonak 14,5); **13 eta 14.** Astean 100 g alkohol baino gehiago hartzen dutenen % doituia (t. gordina: emakumeak 6,3 eta gizonak 34,5); **15 eta 16.** Tabakoa egunero hartzen duten 15 urte edo gehiagoko pertsonen % doituia (t. gordina: emakumeak 13,8 eta gizonak 15,3); **17 eta 18.** Ongizate orokor baxua duten 15 urte edo gehiagoko pertsonen % doituia (t. gordina: emakumeak 26,3 eta gizonak 15,8); **19 eta 20.** Pisu gehiegi, gehiegizko pisua edo obesitatea duten 15 urte edo gehiagoko pertsonen % doituia (t. gordina: emakumeak 47,2 eta gizonak 61,6); **21 eta 22.** Pisu gehiegi - gehiegizko pisua edo obesitatea duten- 6tik 9 urtera arteko haurren prebalentzia doituia, OMEk haurren hazkuntzarako emaniko ereduaren arabera (T. gordina: emakumeak 33,5 eta gizonak 31,6); **23 eta 24.** 2 motako diabetesa duten 20 urte edo gehiagoko pertsonen prebalentzia doituia (T. gordina: emakumeak 7,9 eta gizonak 10,1); **25 eta 26.** Kronikoen estrategian lehenetsitako 3 patologia edo gehiago dituzten 65 urteko edo gehiagoko pertsonen % doituia (t. gordina: emakumeak 3,2 eta gizonak 6,1); **27 eta 28.** Azken urtean, multzo hauetako bateko 3 ontzi edo gehiago hartu dituzten pertsonen % doituia: N50B antsiolitikoak, N05C hipnotikoak eta lasaigarriak eta/edo N06A antidepressiboak (t. gordina: emakumeak 19,2 eta gizonak 8,9); **29.** 2 motako diabetesa izanik, azken urtean hemoglobina glikosilatua (HbA1c-a) neurtu duen biztanleriaren %; **30.** Azken urtean hipertentsioa diagnostikatu eta tentsio arteriala (TA) neurtu zaion biztanleriaren %.